

**974 - 1974**

**LEHEN EUSKAL-HITZAK...**

*Lehen euskal-hitzak  
idatzi dituen  
euskaldun bihotzak  
zer goi-sua zuken!*

*Latin eta latin  
dena San Agustin...  
Jainkoz baitzen hazi  
sua zaio jauzi.*

***“Jainkoaren Hitza,  
gaur euskaraz mintza!”***

*Beneditar bat zen  
Errioxakoa.  
Zuk, zer zuen izen,  
dakizu, Jainkoa.*

*Aurten mila urte,  
zagon nolaz ote  
nolaz Jaun-Goikora  
euskaldun-mintzaira.*

***“Jainkoaren Hitza,  
gaur euskaraz mintza!”***

. . .

*Behar baitu lurrak  
loren eder hura,  
Errioxatarrak,  
ikasi euskara.*

*Aspaldi bezala  
loratu dadila,  
Logroño aldean,  
bihotz ezpainetan.*

***“Jainkoaren Hitza,  
gaur euskaraz mintza!”***

Iratzeder, Belokeko Aita Abadea.

1974 / 6 / 23

(AIREA: Izañ niz Barkotxen...)